

# HIZKUNTZA PRAKTIKAK BERGARA ZARAUTZ

Deskribapena: Kike Bergarako kalean dabil eta banku batean exerita dauden hiru gazterengana hurbilduz doa.

Kike: “Bergarako Udalak Soziolinguistika Klusterraren laguntzaz Bergarako nerabeen hizkuntza praktikak aztertu ditu eremuz-eremu. Aizue, lagunduko al diazue ondorioak aurkezten?”

Hirukote gaztea: “Bai!”

Kike: “Bai? Ba goazen liburutegira.”

Deskribapena: Hirukote gaztea bankutik altxatzen da Kikerekin joateko. Ondoren, liburutegian ageri da.

Kike: “Bergarako gazteek euskara gehien liburutegiko begiraleekin erabiltzen dute, ehuneko laurogeita hamaika.”

Deskribapena: Kike ikastetxe batean ageri da orainoan.

Kike: “Ikastetxeetako erabilera ehuneko hirurogeita hamabian dago.”

Deskribapena: Kike gaztelekuaren kanpoaldean ikusten dugu orain.

Kike: “Xabalote gaztelekuan ehuneko hirurogeita zortzik egiten du euskeraz.”

Deskribapena: Kike kalean ikusten dugu orain.

Kike: “Etxean, ehuneko berrogeita hemezortzi.”

Kike: “Kalean dabiltzala ehuneko berrogeita hamabost.”

Deskribapena: Kike informatika-gela batean dago.

Kike: “Eta sare sozialei dagokienez Bergarako nerabeen artean tuenti euskeraz darabiltenak ehuneko berrogeita hamabi dira; twitter-en kasuan kopuru hau ehuneko berrogeita zortzira jeisten da eta denetan erdaldunena facebook da, euskeraz darabiltenak ehuneko hogeita bederatzi dira.”

Deskribapena: Kike kalean ageri da berriro eta tarte batez, telebista baten barrenean ageri da hizketan.

Kike: “Eta ikusten dituzten telebista saioei dagokie portzentaiarik txikiena, ehuneko hogeita sei. Euskarazko programazioa indartu behar dugun seinale! Baina utz dezagun gai hau beste baterako eta orain Bergaratik”

Deskribapena: Kike Zarautzeko eskolako ikasgelan agertzen da, gazte bakoitzari kolore desberdinetako lau kartulina banatzen egingo dituen galderak erantzuteko baliatuko dituztenak.

Kike: “Aupa gazteak! Jakin nahi duguna da ea zuen etxeetan ze hizkuntza eta nola erabiltzen diren, bai? Beira zuen etxeetan batez ere euskaraz hitz egiten bada, altxa ezazue txartel laranja, bai? Hara! Hemen bost etxe dauzkagu. Ondo! Eta zuen etxeetan batez ere gaztelera erabiltzen baldin bada, altxa txartel berdeak! Ea zenbat ditugun... Sei etxe dauzkagu. Ongi! Eta zuen etxeetan euskera edo gaztelera ez den beste hizkuntzaren bat erabiltzen baldin bada, altxa txartel horia! Hara, bi etxeetan gertatzen da hori! Oso ongi! Eta zuen etxeetan euskera eta gaztelania batera erabiltzen baldin badira, altxa txartel urdina! Hara! Hamaika etxe! Oso ondo! Ikusten da, eh? Hemen denetariko egoerak dauzkagula zuen etxeetan, aizue ba, iruditzen zait mereziko lukeela zuen etxeetan nola erabiltzen diren hizkuntzak gertuagotik ezagutzea. Norbaitek gonbidatuko nau bere etxera hori gertuagotik... eh, inor ez? Aizue, animatu zaitetze! Gainera norbait animatzen baldin bada, hurrengo klasea galdu egingo du, zein animatzen da?”

Ikasgela osoak: “Ni, ni, ni!”